




ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

Etxebide Etxebizitzaren Euskal
Zerbitzuaren ebaluazioa.
Etxebizitza babestuen
eskatzailen erregistroan izena
emana duten pertsonen 2017an
egindako inkesta



Aurkibidea

1.	Etxebiden izena emana duten pertsonen ezaugarriak	3
2.	Etxebizitza-premia ase duten pertsonak	6
3.	Eskatzaileak, bakoitzaren egoeraren arabera	7
3.1.	Herritarren egoera etxebizitzari dagokionez	7
3.2.	Etxebiden izena emana duten herritarren ezaugarriak: adierazle sozioekonomiko nagusiak	9
4.	Etxebizitza-premiaren ezaugarriak	10
4.1.	Etxebizitza-premiaren arrazoiak eta merkatu librean eskuratzeko aukera	10
4.2.	Eskatzen dituzten etxebizitzaren ezaugarriak	12
5.	Etxebiden izena emana dutenek zerbitzuaz egiten duten balorazioa	14
5.1.	Etxebideren balorazio orokorra	14
5.2.	Etxebideren prozesuen eta zerbitzuen balorazioa	17
6.	Etxebizitza-politikei buruzko ebaluazioa	26
6.1.	Lehentasunezko arreta behar duten kolektiboak	26
6.2.	Etxebizitza-politikekiko adostasun-maila	28
6.3.	Etxebizitza-politiken alorreko eredu eta formula berritzaileekiko interesa	30
6.4.	EAEko herri-administrazioek etxebizitza-alorrean egiten duten jardunaren balorazioa	32
7.	Ondorioak	33


1. Etxebiden izena emana duten pertsonen ezaugarriak

2017an nabarmen hazi da Etxebiden etxebizitza babestua eskatzeko izena emana dutenen kopurua eta, beraz, aurreko urteetan izandako joera irauli egin da

2013an Etxebide arautzen duen Agindua¹ indarrean sartu zenean, nabarmen murriztu zen etxebizitza-eskaera. 2013 eta 2014 bitartean, zehazki, izena emana zuten pertsonen kopurua % 36,8 murriztu zen.


2014tik 2016ra arte, pixkanaka baina etengabe beheraka jarraitu zuen Etxebiden izena emandakoen kopuruak. 2017an, ordea, eskatzaileen kopuruak igoera handia izan du (+% 17,9) eta 77.344 pertsona zeuden inskribatuta urtearen amaieran.

Etxebiden izena emana duten pertsonen bilakaera. 2013-2017



2017an gora egin du eskariak, hala alokairu-erregimenean (aurreko urteetan gertatu bezala) nola, eta lehenengoz urte askoan, erosteko erregimenean

Eskariaren bilakaera etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2013-2017) eta eskari osoan duten pisu erlatiboa



2017an alokairuko etxebizitza eskuratzeko 51.171 eskaera egin dira; 2016aren aldean igoera handia (% 17koa) egon da, beraz, eta aurreko urteetako ildoari eutsi zaio.

2017an etxebizitza babestua eskatu duten 10 lagunetik 8k baino gehiagok alokairuaren alde egin dute; 2013an, ordea, % 58 baino ez ziren.

Etxebizitza babestuaren alorrean 2017an izan den aldaketarik handiena beste bat da, ordea; izan ere, urte askotan beherako ildoan ibili ondoren, erosteko erregimeneko eskaerek ere gora egin dute 2016tik 2017ra (+% 18,2): azken urtean 11.344 eskaera egon dira guztira.


¹ Bi urtean behin izen-ematea berritzeko eta alokairua ala erosteko erregimena (bata ala bestea) aukeratzeko betebeharra ekarri zuen.

Orotariko talde eta kolektiboek osatzen dute eskaria

2017an izena eman duten eskaeren eta pertsonen erroldari erreparatuta, izena eman duten herritarren ezaugarri nagusiak ondoriozta ditzakegu:

- **Azterketa lurralde historikoaren arabera.** Eskatzaileen % 53,9 Bizkaian bizi da, % 13,5 Araban eta % 32,4 Gipuzkoan.
- **Egoera zibila.** Eskatzaile gehienak (% 57,2) ezkongabeak dira, eta % 27,3 ezkondua daude edo izatezko bikotea osatzen dute. Nabarmendu egin behar da izena emana duten zazpi pertsonatik bat dibortziatuta edo banatuta dagoela. 2015. urtearekin alderatuta, kolektibo horien pisu erlatiboak ez du aldaketa handirik izan.
- **Adinaren araberako analisia.** Hirutik batek (% 34,1ek) 35 urte baino gutxiago ditu; 2015ean baino pixka bat txikiagoa da, beraz, beraien pisu erlatiboa, orduko hartan % 36,1 baitziren. Beraz, gazteen presentziak behera egin du, eta 40 urtetik gorako pertsonen dagokionez, berriz, 2017an % 47,6 dira, 2015ean baino 2,6 puntu gehiago.
- **Diru-sarreraren maila.** Eskatzaileen % 9,5ek baino ez ditu 25.000 eurotik gorako diru-sarrerak urtean, eta garrantzitsua da urtean 9.000 eurotik behera irabazten dutenen pisu erlatiboa (% 18,4), bai eta inolako diru-sarrerak aitortzen ez dutenena ere (% 25,5).

Etxebiden izena emana duten herritarren ezaugarri nagusien laburpena, 2015-2017



Lan-metodologia

2018ko urrian 618 pertsonako lagin bati egindako inkesta. +/-% 3,9ko estatistika-hutsa eta % 95eko konfiantza-maila dakar horrek. Telefono bidezko inkesta izan da, CATI sistemari jarraituz.

Lurralde historikoen arabera eta Etxebiden etxebizitza eskuratzeko hautatu den erregimenaren arabera banatu da lagina, hutsegiteen maila ahalik eta txikiena izan dadin.

Ahalik eta adierazgarritasunik handiena izan dezan, estatistika-doikuntza egin da, laginari gorapen-koefizientea ezarriz eskatutako erregimenaren eta lurralde historikoaren arabera².

Laginen banaketa sexuaren, lurralde historikoaren eta eskaera-erregimenaren arabera

	%
GUZTIRA	618
Sexua	
Emakumea	% 52,1
Gizona	% 36,2
ED/EDE	% 0,3
Lurralde historikoa	
Araba	% 13,9
Bizkaia	% 52,8
Gipuzkoa	% 33,3
Eskaera-erregimena	
Alokairuan	% 70,9
Erosteke	% 29,1

² Izena emana duten 18 urtetik gorako pertsoneri egin zaie inkesta, izena emana duten % 99,9 baino gehiagori, alegia. Horregatik, inskribatutako pertsonen unibertsoan egin da doitzeko eta goratzeko prozesua.


2. Etxebizitza-premia ase duten pertsonak

Izena eman duten hamar pertsonatik batek etxebizitza-premia ase du

Inkestaren emaitzek erakusten dutenez, Etxebiden izena eman duten pertsonen % 89,9k etxebizitza eskuratzeko premiarekin jarraitzen du.


Gainerako % 10,1ak, berriz, premia ase duela esan du. 2015. urtearekin alderatuta, murriztu egin da etxebizitza eskuratzeko premia ase dutenen kopurua: % 17 ziren orduan, eta % 10,1 2017an.

Etxebizitza eskuratzeko premia aseta ala ase gabe. 2013-2017



Nola ase da etxebizitza-premia?

Premia asetzeko era. 2017




Izena emana duten pertsonen % 3k etxebizitza merkatu librean erosiz ase du premia hori, eta % 2,1ek alokairu libreko etxebizitza eskuratu. Beste % 2,6k alokairuko edo erosteko etxebizitza librea eskuratu du, baina Etxebiden oraindik ez dute egoera berri hori erregistroan eguneratu.

Gainerako kasuei dagokienez, bikotekidearekin emantzipatu dira edota familiak lagatako etxebizitza bat eskuratu dute.

Jabetzako etxebizitza eskatzen zuten pertsonen gehiagotan lortu dute etxebizitza-premia asetzeari, alokairuko etxebizitza eskatzen zutenek baino

Etxebizitza babestua erosteko izena emana edukirik, premia ase duten pertsonen ehunekoa (% 19,4) alokairuko etxebizitza babestua eskatu eta premia ase dutenen (% 8) bikoitza da. Arrazoiak agerikoak dira, etxebizitza babestua erosteko eskaera egin dutenek erosahalmen handiagoa dute eta.

Premia aseta edo ase gabe, eskatutako erregimenaren arabera. 2017





3. Eskatzaileak, bakoitzaren egoeraren arabera


3.1. Biztanleen egoera etxebizitzaren harira

Etxebiden izena emana duten eta etxebizitza behar duten hamar pertsonatik zazpi dagoeneko emantzipatuta daude

Etxebizitza babestua behar duten pertsonen artean (galdekatutako pertsonen % 89,9, etxebizitza-premia ase gabe jarraitzen dutela adierazi dutenak), % 70,4 emantzipatuta dago, eta % 29,6k emantzipatu gabe jarraitzen du.

Ondorioz, azken urteotan etxebizitza babestua eskatzen dutenen osieran eta profilean egon den aldaketa handia da azterketa honen ondorio nagusietako bat; izan ere, 2005ean Etxebiden izena emana zutenen % 32,5 baino ez zegoen emantzipatuta.


Emantzipatuta egon arren etxebizitza babestua eskatzen jarraitzen duen biztanleria. 2005-2017



Aurreko edizioen ildotik, Araban dago Etxebiden izena emana dutenen artean emantzipatuen ehunekorik handiena

2015ean gertatu bezala, Araban dago etxebizitza babestua eskatzeko izena emana duten pertsonen artean emantzipatuen ehunekorik altuena: % 84,5 zehazki. Bizkaian % 66,7 dira eta Gipuzkoan % 70,7.


Etxebizitza babestuen eskatzaileen artean emantzipatuta dauden herritarren pisu erlatiboa, lurralde historikoaren arabera. 2017



Alokairua eskatzen duten pertsonen artean gehiago dira emantzipatuak, erosteko etxebizitza babestua eskatzen dutenen artean baino

Emantzipatuta egonik etxebizitza babestua eskatzen duten pertsonen ehunekoa argi eta garbi nagusitzen da, bai alokairuko etxebizitza babestua eskuratzeko, bai erosteko etxebizitza babestua eskatzeko. 2017an ere, dagoeneko 2015ean antzeman zen joera berretsi egin da: alokairuko etxebizitza eskatzen dutenen artean, emantzipatuen ehunekoa altuagoa da.

Etxebiden izena emanda jarraitzen duten pertsonen egoera etxebizitzarekiko, eskatutako erregimenaren arabera. 2017




Gainerakoak: alokairuko etxebizitza babestuan bizi naiz; alokairuko etxebizitza partekatzen du; lagatako etxebizitzan bizi naiz; beste egoera bat.

Emantzipatutako pertsonak eta familiek 512 euro ordaintzen dituzte, batez beste, alokairu librean

Alokairu libreko etxebizitza batean emantzipatuta bizi diren pertsonak 512 euro ordaintzen dituzte alokairu librean. Zenbateko hori are altuagoa da Gipuzkoan: 556 euro batez beste.

Alokairuan dauden pertsonak batez beste ordaintzen duten hileko errenta, lurralde historikoaren arabera. 2017




3.2. Etxebiden izena emana duten herritarren ezaugarriak: adierazle sozioekonomiko nagusiak

Izena emana duten pertsonen artean asko dira langabezian daudenak eta prestazio sozialen bat jasotzen dutenak

Inskribatutako bost pertsonatik bat langabea da, Euskadin oro har dagoen tasaren bikoitza. Horrekin batera, Etxebiden izena emana duten pertsonen % 22,7k prestazio sozialen bat jasotzen du, eta azpimarratzekoa da etxebizitza-gastuetarako prestazio osagarria jasotzen dutenen kopurua. Era berean, inskribatutako hamar pertsonatik seik lanen bat duten arren, horietako heren baten enplegua prekarioa edo behin-behinekoa da.

Denboran begiratuta, Etxebiden izena emana dutenen artean, 2015etik 2017ra euren egoera ekonomikoak txarrera egin duela uste duten pertsonen ehunekoa handiagoa da (% 23,7), hobera egin duela uste dutenena baino (% 16,7).

Dena dela, baikortasuna ere nabari da, izena eman dutenen % 33,8k bere egoera hobetu egingo dela uste baitu, eta soilik % 7,9k txarrera egingo duela.



4. Etxebizitza-premiaren ezaugarriak


4.1. Etxebizitza-premiaren arrazoia eta merkatu librean eskuratzeko aukera

Hamar bider handitu da alokairu merkea eskuratzearen garrantzia

Alokairu merkea eskuratzea da Etxebiden izena emateko arrazoi nagusia (horixe erantzun du elkarrizketatutako pertsonen % 49,1ek). Eta azken urteetan are garrantzi handiagoa hartu du etxebizitza babestua eskatzen duten herritarren artean, higiezinen merkatuan bertan izan diren aldaketa handien ondorioz. 2005. urtearekin alderatuta, 10 bider handitu da.


Beste muturrean, independente izateko gogoak egiturazko beherako joera argia adierazten du. 2017an, Etxebiden izena eman duten lau pertsonatik batek baino ez du esan horixe dela inskribatzeko arrazoia: 2005. urtean horixe adierazi zutenen erdiak.

Etxebizitza-premiaren bi arrazoi nagusien bilakaera. 2005-2017 (erantzun guztiekiko %-a)



Izena emateko beste bi arrazoi: % 10ek dio jabetzako etxebizitza nahi duela, eta soilik % 3,8k bikotekidearekin bizi nahi duela.

Etxebizitza eskuratu nahi izateko arrazoiak, 2017 (erantzun guztiekiko %-a)




Etxebiden izena eman dutenek gero eta zailagoa ikusten dute etxebizitza librean merkatuan etxebizitza eskuratzeko aukera


Egoera sozioekonomiko globalak hobera egin badu ere, Etxebiden inskribatuta dauden pertsonen ustez, 2015ean baino zailagoa dute merkatu librean etxebizitza eskuratzeko aukera. 2017an inskribatutako hamar pertsonatik bederatzik (% 88,9k) oso urritzat jotzen du merkatu librean etxebizitza erosteko aukera, eta 2015ean, berriz, gutxiagok (% 82,9k) uste zuen hori.

Hartara, 2015. urtearen aldean, inskribatutako pertsonen ustez okerrera egin du merkatu librean etxebizitza eskuratzeko aukerak. Oti 100era bitarteko eskalan, 2015ean 19,1 puntu ematen zioten merkatu librean etxebizitza eskuratzeko aukerari, eta 11,9 puntu, berriz, 2017an.


Etxebizitza-merkatu librean etxea eskuratzeko aukera-indizea, eskaeraren erregimenaren arabera.



Etxebizitza-merkatu librean etxea hartzeko aukera. 2017



Etxebizitza-merkatu librean etxea hartzeko aukera-indizea. 2015-2017




Uste hori, gainera, erosteko etxebizitza babestua nahiz alokairukoa eskatzen dutenek partekatzen dute, bi taldeak 2015ean baino ezkorrago ageri baitira merkatu librean etxebizitza eskuratzearen inguruan.

Dena dela, erosteko etxebizitza babestua eskatzen dutenak zertxobait baikorrago ageri dira, lau pertsonatik batek uste baitu etxebizitza librea erosteko aukera baduela, eta soilik hamarretik batek alokairuko etxebizitza babestua eskatzen dutenen artean.

Hiru lurralde historikoetan egin du behera etxebizitza librea eskuratzeko aurreikuspenak. Izan ere, lurraldetik lurraldera oso alde txikia dago: 12 puntu ingurukoa da Bizkaian eta Gipuzkoan, eta pixka bat txikiagoa (8,8 puntukoa) Araban.

Etxebizitza-merkatu librean etxebizitza eskuratzeko aukera, lurralde historikoaren arabera




4.2. Eskatzen dituzten etxebizitzaren ezaugarriak

Etxebizitza babestua eskuratzearren, udalerrria aldatzeko prestutasunak gora egin du, baina aldeak nabaritzen dira probintziatik probintziara


Etxebizitza babestua eskuratzearren udalerriz lekualdatzeko prestutasunak 2015ean behera egin ondoren, berriro gora egin du 2015etik 2017ra, eta % 60,7raino igo da.

Udalerrria aldatzeko prestutasuna. 2013-2017 (inskribatutakoen %-a)




- **Lurralde historikoaren araberako azterketa.** Araban izena emana duten pertsonak etxebizitza babestua eskuratzeko udalerrria aldatzeko prestutasun gutxiago adierazi dute: % 23,9 baino ez dago horretarako prest. Gipuzkoan % 56,3 dira, eta Bizkaian % 72,6.
- **Etxebizitza eskuratzeko erregimenaren araberako azterketa.** Ia ez dago alderik etxebizitza eskuratzeko bi erregimenen artean: alokairuko etxebizitza babestua eskatzen duten pertsonak udalerrria aldatzeko zertxobait prestuago ageri dira (% 61,3) erostekoa eskatzen dutenak baino (% 57,6).

Udalerrria aldatzeko prestutasuna, lurralde historikoaren arabera (inskribatutakoen %-a)




Udalerrria aldatzeko prestutasuna, eskaeraren erregimenaren arabera (inskribatutakoen %-a)






Hamar pertsonatik lauk eskatu dute etxebizitza babestua beste udalerriren batean, 2015ean izan zen antzeko maila (% 42,8). Ehuneko hori askoz ere txikiagoa da Araban (% 11,8) Gipuzkoan baino (% 35,1) eta, bereziki, Bizkaian baino (% 50,1).

Bizi diren udalerrian ez beste batean etxebizitza babestua eskatu duten pertsonak, lurralde historikoaren arabera (inskribatutakoen %-a)



Bizi diren udalerrian ez beste batean etxebizitza babestua eskatu duten pertsonak, eskaeraren erregimenaren arabera (inskribatutakoen %-a)



5. Etxebiden izena emana dutenek zerbitzuari buruz egiten duten balorazioa


5.1. Etxebideren balorazio orokorra

Zerbitzuak balorazio global positiboa izan du 2017an ere

Etxebiden izena emana duten pertsonen zerbitzuari buruzko balorazio positiboa egin dute: Otik 100erako eskalan 57,5, zehazki.

2015. urtearen aldean, batez besteko balorazio horrek 1,8 puntu egin du behera, baina 2011ko eta 2012ko balorazioa baino altuagoa izaten jarraitzen du.


Etxebideren batez besteko balorazioaren bilakaera. 2011-2017



Hiru lurraldeetan izan du balorazio positiboa, zertxobait altuagoa Araban, eta antzekoa eskaera-erregimenari erreparatuz gero


2015ean bezala, Etxebidek Araban lortu du baloraziorik positiboena (61,8), nahiz eta hiru lurralde historikoetan jaso balorazio orokor positiboa. Zehazki, Bizkaian 55,7 puntukoa eta Gipuzkoan 58,7 puntukoa izan da.

Etxebideren balorazioa, lurralde historikoaren arabera. 2015-2017



Balorazioa positiboa da, halaber, eskaera-erregimenari erreparatuz gero. Erosteko erregimenean izena emana duten pertsonen 58,6 puntuko balorazioa egiten dute batez beste, eta alokairuko etxebizitza eskatzen dutenek 57,2 puntukoa.

Etxebideren balorazioa, eskuratzeko erregimenaren arabera. 2015-2017




Elkarrizketatutako pertsonen erdiak inguruk balorazio ona edo oso ona aitortzen diote Etxebideri: % 41,4k ontzat jotzen du zerbitzua, eta % 6,9k oso ontzat. Bost pertsonatik batek baino ez du Etxebideren zerbitzuaren balorazio negatiboa egiten.


Hiru lurralde historikoetan, iritzi positiboa argi eta garbi nagusitzen da Etxebideren balorazioan.

Ildo beretik, bai erosteko etxebizitza babestua eskatzen dutenek bai alokairukoa eskatzen dutenek egin dute balorazio positiboa edo oso positiboa (% 50,3 eta % 48 hurrenez hurren).

Etxebideren balorazioa, lurralde historikoaren arabera. 2017



Etxebideren balorazioa, eskuratzeko errequimenaren arabera.



Jasotako arretaren eta 2017an izena emateko prozedura hobetuaren balorazioa

Etxebideko langileek ematen duten arreta da Etxebideren zerbitzuan baloraziorik onena jaso duen alderdian: 74,9 puntu Otik 100erako eskalan, eta 2015ean baino hobeto (71,4 puntu orduko hartan).

Izena emateko prozedura ere hobetu da 2015etik (67,5 puntu) 2017ra (69,3).

Etxebideren zerbitzuaren hainbat alderdiren batez besteko balorazioa. 2015-2017



Etxebizitza-eskaintza, esleipen-prozedurak eta etxebizitzaren kontrola, hobetu beharreko funtsezko alderdiak

Etxebizitza-eskaintzak 39,5 puntuko balorazioa jaso du batez beste (47,1 puntu 2015ean). Joera logikoa da, kontuan hartuta azken urteotako aurrekontu-murrizketen ondorioz etxebizitza babestuen sustapenak izan duen beherakada. Era berean, esleitutako etxebizitzaren gaineko kontrolari buruzko iritziak ere okerrera egin du: 50,2 puntu aitortu zizkioten 2015ean, eta 39,6 puntu 2017an.


Izan ere, hobetu beharreko bi alderdi aipatu dira gehien: etxebizitza-eskaintza (% 56,2) eta esleitzeko prozedurak (% 45,1). Eta, ildo beretik, esleitutako etxebizitzak kontrolatzeko premia ere hobetu beharreko alderditzat jo dute: horixe adierazi du Etxebiden inskribatutakoen % 37,2k.

Etxebiden hobetu beharreko alderdi nagusiak




Hiru lurralde historikoetan, etxebizitza-eskaintza da gehien aipatzen den hobetu beharreko alderdia. Dena dela, azpimarragarria da Gipuzkoan esleitutako etxebizitzaren kontrolak ere garrantzi handia duela, eta Araban, berriz, informazioa eta komunikazioa hobetzeko beharra azpimarratu dutela.

Etxebiden hobetu beharreko 5 alderdi nagusiak, lurralde historikoaren arabera



Etxebiden hobetu beharreko bost alderdi nagusiak, etxea eskuratzeko erregimenaren arabera



5.2. Etxebideren prozesuen eta zerbitzuen balorazioa


Etxebizitzako lurralde-ordezkaritzetan jasotako arretaren balorazioa

Hiru ordezkartzetan, aurrez aurreko zerbitzuak balorazio positiboa merezi izan du, argi eta garbi


Etxebiden izena emana duten pertsonen % 40,5ek egin du aurrez aurreko gestioaren bat Etxebizitza Ordezkaritzetan. Horrek esan nahi du 2015ean bertara joan zirenen kopuruaren aldean beherakada argia egon dela, orduko hartan gehiengoa baitzen (% 69,3).

Ordezkaritzetan aurrez aurreko zerbitzuak erabili dituzten pertsonen artean gogobetetasun-maila handia dago (77,8 puntu 0tik 100era bitarteko eskalan), eta 2015ean lortutako batez besteko puntuazioa baino nabarmen hobea da.

Etxebizitza Ordezkaritzen batez besteko balorazioa. 2013-2017




Ordezkaritzan jasotako arretaren balorazioa (%)



Lurralde historikoaren araberako azterketa. Hiru probintzietan gailentzen da gogobetetasun-maila handia, eta hiruretan hobetu da balorazioa 2015. urtetik 2017ra.


Ordezkaritzetan jasotako arretaren balorazioa, lurralde historikoaren arabera. 2015-2017



Etxebizitza eskuratzeko erregimenaren araberako azterketa. Alokairuko etxebizitza eskatu duten pertsonak nahiz erostekoa eskatu dutenek, denek egin dute balorazio positiboa (76,9 eta 72,3 puntu hurrenez hurren).


Era berean, 2015. urtearen aldean, batzuen nahiz besteen balorazioa hobetu egin da.

Ordezkaritzetan jasotako arretaren batez besteko balorazioa, eskaeraren erregimenaren arabera. 2015-2017



Arazoak egoki konpontzea. Ordezkaritzetan arazoa egoki konpondu dutela adierazi duten pertsonen ehunekoa oso handia da (% 83,8), 2015ean baino handiagoa (% 79,6). Ordezkaritzak banan-banan ikusita, Bizkaian (% 86,4) eta Gipuzkoan (% 85,8) gogobetetasun-maila altuagoa dago Araban baino (% 68,6).

Ordezkaritzan arazoa/eskaera egoki konpondu dute




Izena emateko prozesuaren balorazioa

Hobetu egin da izena emateko prozesuan jasotako arretaren balorazioa


2017an, izena emateko prozesuetan jasotako arretaren batez besteko balorazioa 74,7 puntukoa izan da, eta 72,4 puntukoa 2015ean.

Eskatzen den dokumentazioak eta administrazio-kontuek ere balorazio positiboa merezi izan dute (65,4), bai eta prozesuan jasotako informazioak ere (58), nahiz eta 2015etik 2017ra bitartean puntuazioak pixka bat behera egin.




Lurralde historikoaren eta eskuratzeke erregimenaren arabera azterketa. Hiru lurralde historikoetan jaso da balorazio positiboa. Alokairuko eskariari dagokionez, inskribatutako pertsonak balorazio bereziki positiboa egin dute jasotako arretaz, 0-100 eskalan 75 puntu baino gehiago emanez.

Alderdi bakoitzaren batez besteko balorazioa, lurralde historikoaren arabera



Alderdi bakoitzaren balorazioa, eskariaren erregimenaren arabera



Izen-ematea berritzeko prozesuaren balorazioa


Izen-ematea berritzeko prozesuekiko gogobetetasunak gora egin du

Azken urtean, Etxebiden inskribatutakoen % 56,9k berritu du izen-ematea, gehixeagok (% 60,7k) Gipuzkoan eta Bizkaian (%57,1ek) eta gutxixeagok Araban (% 46,4k).


Berritze gehienak ordezkaritzan bertan egin dira (% 37,6), baina garrantzitsua da, halaber, izen-ematea berritzeko prozesua Etxebideren webgunean egin dutenen ehunekoa (% 15,4k erabili du bide hori).

Izen-ematea berritu dutenek prozesuarekiko gogobetetasun-maila altua adierazi dute (76,2 puntu batez beste), eta 2015etik 2017ra bitartean 3,7 puntu egin du gora.

Izen-ematea berritzeko prozesua burutu dute. 2017 (inskribatutakoen %-a)




Izen-ematea berritzeko prozesuaren batez besteko balorazioa. 2013-2017



Hiru lurralde historikoetan egin du gora izen-ematea berritzeko prozesuaren balorazioak

Hiru lurralde historikoetan egin du gora izen-ematea berritzeko prozesuari buruzko balorazioak, zertxobait gehiago Araban (79,2), Bizkaian (76,8) eta Gipuzkoan (74,4) baino.


Izen-ematea berritzeko prozesuaren balorazioa, lurralde historikoaren arabera. 2015-2017



Etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera azterketa. Izen-ematea berritzeko prozesuaren balorazioa oso positiboa da erosteko etxebizitza babestua eskatzen dutenen artean (72,3) eta areago alokairuko etxebizitza eskatzen dutenen artean (76,9).

2015. urtearen aldean, gora egin du erregimenen batean nahiz bestean inskribatutako pertsonen balorazioak.

Izen-ematea berritzeko prozesuaren balorazioa, eskaeraren erregimenaren arabera. 2015-2017




Eskaerari buruzko informazioaren eta komunikazioaren balorazioa


2015. urtearen aldean, behera egin du Etxebidek informazio nahikoa ematen duela adierazten duten pertsonen ehunekoak

2017an behera egin du Etxebiden izena emana duten pertsonen artean eskaeraren egoerari buruzko informazio nahikoa jasotzen dutela dioten ehunekoak (% 25,9k adierazi du hori). 2015ean jasotako ehunekoetik (% 41,6) dezente behera dago emaitza hori, eta 2013an jasotako antzeko ehunekoan (% 28,5).


Izena emana dutenen artean informazio nahikoa jasotzen dutela diotenak. 2013-2017 (inskribatutakoen %-a)



Zure ustez, nahikoa informazio eman dizu Etxebidek zure eskaeraren egoerari buruz? 2017



Informazioa jasotzeko bideak. 2017




Informazioa jasotzeko bidea. Eskaeraren egoerari buruzko informazioa jasotzeko bide nagusia, oraindik ere, posta arrunta da. Horixe esan du inkestari erantzun dioten pertsonen % 67,7k. Posta elektronikoa eta telefono mugikorra ere informazioa jasotzeko bide garrantzitsuak dira (% 59 eta % 39,1 hurrenez hurren). Era berean, Etxebiden izena emana dutenen % 5,3k esan du sare sozialetatik jasotzen duela informazioa.


Webguneari buruzko ezagutza eta balorazioa

Inskribatutakoen erdiak baino gehiagok (% 54,5ek) jo dute noiz edo noiz Etxebideren webgunera, 2015ean baino apur bat gutxiagok. Era berean, inskribatutako lau pertsonatik hiruk (% 74,4) webgunea ezagutzen dutela adierazi dute, nahiz eta % 5,2k soilik jotzen duen bertara maiztasunez.

Webgunearen ezagutza eta erabilera (inskrutatutakoen %-a). 2012-2017




Ezagutzen duzu Etxebideren webgunea? 2017




Webguneari sartzeko arrazoiak. Webguneari sartu diren pertsona gehienak (% 72,5) sustapenen eta zozketen berri izateko sartu dira webguneari. Webguneari sartzeko gainerako arrazoiak askoz ere pisu txikiagoa dute.

Etxebideren webguneari sartzeko arrazoiak. 2017




Webgunea ezagutzen dutenen artean, balorazioa oso positiboa da (64,7 puntu 0-100 eskalan), nahiz eta 2015. urtearen aldean behera egin duen.

Etxebideren webguneari sartzeko arrazoiak. 2013-2017




Etxebideren webgunearen balorazioa, lurralde historikoaren arabera. 2017



Erabiltzaileek hiru lurraldeetan egiten dute webgunearen balorazio positiboa, 65 puntu ingurukoa.

Etxebizitza eskuratzeko erregimenaren araberrako azterketa. Alokairuko erregimenaren alde egin duten erabiltzaileek (64,6) nahiz erosteko erregimenaren alde (64,9) egin dutenek, bi taldeek egiten dute webgunearen balorazio positiboa.


Etxebideren webgunearen balorazioa, eskaeraren erregimenaren arabera.



Esleipen-prozesuaren balorazioa

Inkestari erantzun dioten pertsonen % 7,8k esan du azken urtean esleipen-prozesuren batean hartu duela parte. Ehuneko hori altuagoa da Gipuzkoan (% 9,6) eta Bizkaian (% 7,6), Araban baino (% 3,7).


Azken urte honetan hartu al duzu parte etxebizitza babestua esleitzeko prozesuren batean, zure borondatez? 2017 (parte hartu duten pertsonen %-a)



Euskadi:
7,8

Era berean, izena eman dutenen artean etxebizitza babestua esleitu ondoren uko egin diotenen ehunekoa oso-oso txikia izan da: kolektiboaren % 1,8 baino ez (% 1 alokairuko erregimenean eta % 0,8 erosteko erregimenean).

Azken urtean uko egin diozu esleitu dizuten etxebizitzari? 2017 (uko egin dioten pertsonen %-a)




Esleipen-prozesuekiko konfiantzak behera egin du, azken urteetan gora egin ondoren


Esleipen-prozesuekiko batez besteko konfiantza-mailak behera egin du azken inkestan: 46,1ekoa zen 2015ean (0-100 eskalan) eta 40,4koa izan da 2017an.

Ehunekotan adierazita, Etxebiden izena emana duten pertsonen % 59,6 prozesu horiekiko mesfidati ageri da.

Esleipen-prozesuekiko konfiantza-indizea. 2012-2017




Esleipen-prozesuekiko konfiantza, lurralde historikoaren arabera. 2017



Lurralde historikoaren arabera azterketa. Konfiantza-maila txikiagoa da Bizkaian (38,4 puntu batez beste) gainerako bi probintzietan baino.


Etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera azterketa. Etxebizitza babestua erosteko erregimenean eskatzen duten pertsonen konfiantza-maila altuagoa dute, alokairuko erregimenean eskatzen dutenek baino.

Esleipen-prozesuekiko konfiantza-indizea, lurralde historikoaren arabera. 2017




Etxebizitza-esleipenduna izateko aukerak. Epe laburrean etxebizitza-esleipenduna izateko aukerei buruzko itxaropenak behera egin du 2015etik 2017ra bitartean. Batez beste 26,0ko puntuazioa eman zaio 2017an, 2015ean baino 11,5 puntu gutxiago. 2017an, izena emana duten hiru pertsonatik bik uste dute etxebizitza babestu baten esleipena lortzeko aukerak txikiak edo oso txikiak direla.


Etxebizitza babestu baten esleipenduna izateko aukerak. 2017 (izena emana dutenen %-a)



Etxebizitza babestu baten esleipenduna izateko aukerak, lurralde historikoaren arabera. 2015-2017
(izena emana dutenen %-a)




Etxebizitza babestu baten esleipenduna izateko aukerak, eskuratzeko erregimenaren arabera. 2015-2017
(izena emana dutenen %-a)



Etxebiden izena emana dutenen % 16,6k uste du etorkizunean etxebizitza esleitzeko aukerak handitu egingo direla; hau da, aukerak murriztu egingo direla uste duten pertsonak (% 10,8) baino gehiago dira.

Esleipenduna izateko aukeraren bilakaera. 2017 (izena emana dutenen %-a)



6. Etxebizitza-politikei buruzko ebaluazioa

6.1. Lehentasunezko arreta behar duten kolektiboak

Diru-sarrera urriko pertsonentzako lehentasunezko arreta

Etxebiden izena emana duten pertsonen iritzian, lehentasunezko arreta merezi dute diru-sarrera txikiak dituztenek (% 43,2k erantzun du hori) bai eta, hein txikiagoan, desgaitasuna duten pertsonak (% 33,7k) eta etxegabetzeen edo antzeko egoeren ondorioz etxebizitza galdu dutenek (% 20,3k).


Gainerako kolektiboak gutxiagotan aipatzen dituzte (% 20tik behera).

Etxebizitza-politiken lehentasunezko arreta behar duten taldeak (inskribatutakoen %-a).



Lurralde historikoaren arabera azterketa. Hiru lurraldeetan, diru-sarrera txikiak dituzten pertsonak dira lehentasunezko arreta merezi dutenak, eta bigarren tokian dago desgaitasuna duten pertsonen kolektiboa. Hortik aurrera, badira alde batzuk: Araban, adibidez, familia ugariak aipamen berezia merezi dute, eta Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, erregistroan denbora luzea daramatenak eta etxegabetzea jasan dutenak aipatu dituzte.


Lehentasunezko arreta merezi duten kolektiboak, lurralde historikoaren arabera. 2017



Etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera azterketa. Etxebizitza babestua erosteko erregimenean nahiz alokairuko erregimenean eskatu dutenek diru-sarrera urriko pertsonak eta desgaitasuna dutenak jarri dituzte lehentasunezko arretaren lehen eta bigarren lekuan.

Hortik aurrera badira alde txiki batzuk, alokairuko etxebizitza eskatu dutenek erregistroan luzaroen daudenak lehenesten baitituzte, eta erosteko erregimeneko etxebizitza eskatu dutenek, aldiz, etxegabetzea jasan dutenak.

**Lehentasunezko arreta behar duten kolektiboak, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera. 2017
(kolektibo bakoitza aipatu duen inskribatuen %-a)**



6.2. Etxebizitza-politikekiko adostasun-maila

Ageriko adostasuna dago Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen neurri eta jardunbide nagusiekin

Azterketaren aurreko edizioetan bezala, 2017an ere adostasun handia dago Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015eko Legean jasotako alderdi nagusiekin. Etxebiden inskribatutako pertsonen % 85ek baino gehiagok adierazi du Legearen funtsezko alderdiekin ados edo oso ados dagoela. Honako alderdi hauek aipatu dituzte:

- Administrazioen arteko koordinazio handiagoa etxebizitza-politikak eta -programak jorratzean.
- Eraikitzen diren etxebizitza babestu gehienak alokairu-erregimenera bideratzea.
- Etxebizitza hutsen erregistroa sortzea.
- Legeak aitortzen duen etxebizitzarako eskubide subjektiboa.

Era berean, etxebizitza hutsen gaineko kanonak ere jaso du gehiengoaren babesa (Etxebiden inskribatuta dauden pertsonen % 73,9 ados edo oso ados dago). Aitzitik, merkaturatzen ez diren etxebizitza hutsak aldi baterako desjabetzeko aukerak elkarrizketatutako pertsonen erdian (% 49,5) babesa baino ez du jaso.

Etxebizitza-politikan proposatutako jardunbideekiko adostasun-maila (oso ados edo nahikoa ados daudela adierazten duten pertsonak, %-tan).

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean jasotako jardunbidea	Oso ados edo nahikoa ados (%)
Alokairu babestuko erregimenean bizi diren pertsonen urtero egokitzea ordaindu beharreko errenta, haien diru-sarreraren arabera	94,8
Udaletan eta Eusko Jaurlaritzan etxebizitza babestua eskuratzeko erregistroak bateratzea	92,9
Administrazio publikoen etxebizitzaren alorreko politika eta programen arteko koordinazioa handitzea	91,6
Euskadin hutsik dauden etxebizitzaren erregistroa sortzea (Etxebizitzari buruzko Legeak ere aurreikusten du)	91,3
Eraikitzen diren etxebizitza babestu gehienak errentakoak izatea	87,8
Etxebizitza babestuaren prezioa handiagoa izatea diru-sarrerara handiagoak dituztenentzat	86,6
Etxebizitza duina eskuratzeko edo etxebizitzarako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea, baldin eta gutxieneko antzinasun jakin bat eta gehieneko diru-sarrerara batzuk badituzte (Etxebizitzari buruzko 3/2015 legean jasota)	86,0
Etxebizitza hutsen gaineko kanon bat ezartzea	73,9
Merkaturatzen ez diren etxebizitza hutsak aldi baterako desjabetzea (huts izendatu eta 2 urtera)	49,5

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen jardunbideek jasotzen duten babes handia hiru lurralde historikoetan ageri da. Etxebizitza hutsak desjabetzeko aukerak jaso du adostasun-mailarik txikiena: Bizkaian eta Araban % 50etik gorako adostasuna jaso duen arren, Gipuzkoan % 46,5ek baino ez du adierazi adostasuna.

Etxebizitza-politikan proposatutako jardunbideekiko adostasun-maila (oso ados edo nahikoa ados daudela adierazten duten pertsonak, %-tan), lurralde historikoaren arabera

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean jasotako jardunbidea	Oso ados edo nahikoa ados (%)		
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Alokairu babestuko erregimenean bizi diren pertsonen urtero egokitzea ordaindu beharreko errenta, haien diru-sarreraren arabera	87,8	96,2	95,3
Udaletan eta Eusko Jaurlaritzan etxebizitza babestua eskuratzeko erregistroak bateratzea	93,5	92,9	92,5
Administrazio publikoen etxebizitzaren alorreko politika eta programen arteko koordinazioa handitzea	94,5	91,5	90,6
Euskadin hutsik dauden etxebizitzaren erregistroa sortzea (Etxebizitzari buruzko Legeak ere aurreikusten du)	81,4	94,8	89,7
Eraikitzen diren etxebizitza babestu gehienak errentakoak izatea	89,5	88,2	86,5
Etxebizitza babestuen prezioa handiagoa izatea diru-sarrera handiagoak dituztenentzat	81,8	88,1	86,1
Etxebizitza duina eskuratzeko edo etxebizitzarako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea, baldin eta gutxieneko antzintasun jakin bat eta gehieneko diru-sarrera batzuk badituzte (Etxebizitzari buruzko 3/2015 legean jasota)	87,7	84,3	87,9
Etxebizitza hutsen gaineko kanon bat ezartzea	80,8	74,2	70,7
Merkaturatzen ez diren etxebizitza hutsak aldi baterako desjabetzea (huts izendatu eta 2 urtera)	54,1	50,1	46,5

6.3. Etxebizitza-politiken alorreko eredu eta formula berritzaileekiko interesa³


Alokairu babestua eskuratzeko neurriei buruzko interes-maila

Erosteko aukera ematen duen alokairuak jaso du interesik handiena, alokairu babestua sustatzeko ezar litezkeen neurrien artean

Babestutako alokairua sustatzeko proposatutako neurrien artean, *erosteko aukera ematen duen alokairuak* eta alokairu-kooperatibek jaso dute alokairuko etxebizitza eskatu duten pertsonen gehiengoaren babesa. 0-100 eskalan, bi aukera horiek 62 eta 56 puntuko adostasun-maila jaso dute, hurrenez hurren.

Aitzitik, alokairuko etxebizitza beste pertsona batzuekin partekatzeak aukerari lotutako aukerak gutxiengoaren babesa jaso dute.

Alokairu babestua sustatzeko neurriekiko batez besteko interes-maila




Erosteko etxebizitzan izena ematea sustatzeko neurriei buruzko interes-maila

Ordainketa geroratuko etxebizitza-salmentak balorazio positiboa jaso du

Etxebizitza babestuak erosteko, ohiko banku-finantzaketa erabili beharrean ordainketa geroratua erabiltzeko aukerak adostasun-maila altua jaso du: etxebizitza erosteko erregimenean eskatu duten pertsonak 71 puntu eman dizkiote 0-100 eskalan.

Aitzitik, jabetza partekatutako oso adostasun-maila txikia lortu du: 19,9 puntu batez beste.


{Erosteko etxebizitza babestua eskuratzeko sustatzeko neurriekiko batez besteko interes-maila



³ Alokairuko eta jabetzako etxebizitza babestuak sustatzera bideratutako jardunbideekiko adostasun-maila ikertu nahi izan du azterketak. Kasuaren arabera, alokairuaren edo jabetzaren alde egin duten pertsonen egin zaie galdera.

Erosketaren alde egin duten pertsonen finantzaketa-aurreikuspenak positiboak dira, eta hobera egin dute 2015ekoen aldean. Erosteke etxebizitza babestua eskatu duten hamar pertsonatik seik (% 59,3k) uste dute ia seguru lortuko dutela behar duten finantzaketa. 2015ean % 39,1ek uste zuten hori.

Etxebizitza babestua erosteko banku-finantzaketa eskuratzeko aukerari buruzko balorazioa. 2015-2017




6.4. EAEko herri-administrazioek etxebizitza-alarrean egiten duten jardunaren balorazioa

Udalek eta Eusko Jaurlaritzak jasotako batez besteko puntuazioak apur bat behera egin du


Erakundeek etxebizitzaren alorrean gauzatu duten jardunari buruzko balorazioak txarrera egin du 2015etik 2017ra bitartean Etxebiden izena emana duten pertsonen artean. Otik 100era bitarteko eskalan batez beste 43,7ko puntuazioa eman diote 2017an, eta 47,6ko puntuazioa 2015ean. Era berean, udalen lanari buruzko balorazioak ere apur bat txarrera egin du: 46,5 puntu 2015ean eta 42,3 puntu 2017an.

Aitzitik, foru-aldundiei dagokienez (etxebizitza eskuratzean eragin zuzena duen zerga-politikaz arduratzen dira, hala nola PFEZ-z), batez besteko balorazioak hobekuntza txikia izan du 2015-2017 bitartean: 50,5 puntu 2015ean eta 52,5 2017an.


Eusko Jaurlaritzak etxebizitza-arloan egindako jardueraren batez besteko balorazioa. 2015-2017



Udalek etxebizitza-arloan egindako jardueraren batez besteko balorazioa. 2015-2017



Foru Aldundiek etxebizitza-arloan izandako jardueraren batez besteko balorazioa. 2015-2017



7. Ondorioak

2017an etxebizitza babestuen eskariak gorakada handia izan du, eta ondorioz eten egin da aurreko urteetako joera

2017ko abenduan 77.344 eskaera zeuden Etxebiden (2016an baino % 17,9 gehiago). Hartara, hazkunde handia egoteaz gain, aurreko urteetako beherako joera irauli egin da.

Etxebizitza babestuen eskariaren hazkundera bi erregimenetan gertatu da: alokairuko etxebizitzaren eskaerek % 17,0 egin dute gora 2016aren aldean, eta erosteko etxebizitzaren eskaerek % 18,2.

2017an erosteko etxebizitza babestua eskuratzeko eskariak izan duen gorakada oso nabarmena da, aurreko urteetan beherakada handiak egon dira eta. Dena dela, 2017an ere hamar eskaeratik 8 baino gehiago alokairuko etxebizitza babestua eskuratzeko izan dira (2013n, alokairuak % 58,1eko pisua zeukan).

Etxebizitza babestua eskatzen duten pertsonen artean prekarietate ekonomiko nabarmena antzematen da

Egoera ekonomiko prekarioak eragin nabarmena du etxebizitza eskuratzeko izena emana duten pertsonen artean. Inkestan honako hauek azalera dira:

- Langabeziak eragin handia du (izena emana duten pertsona guztien % 20,5), bai eta enplegu prekarioak ere (izena emana dutenen % 18,9).
- Oso diru-sarrera txikiak dituzte eta, ondorioz, merkatu librean etxebizitza eskuratzeko ia aukerarik ez.
- Eskari horretan gero eta profil eta kolektibo gehiago biltzen dira: geroz eta gehiago dira, adibidez, adinekoak (% 47,5ek 40 urte baino gehiago ditu) eta gora egin du, halaber, dibortziatutako edo banatutako pertsonen kopuruak.

Etxebizitza eskatzen jarraitzen duten hamar pertsonatik zazpi emantzipatuta daude

Azterketaren emaitzarik garrantzitsuenetako bat hauxe izan da: azken urteotan euren etxeetatik emantzipatu diren pertsonak hartu duten pisu handia; gehienek alokairu librerara jo behar izan dute. 2015. urtearekin alderatuta, ehuneko horrek are gorago egin du: % 60,4 izatetik % 70,4 izatera. Emantzipatutako pertsonen eta familien pisu erlatiboa oso altua da hiru lurralde historikoetan: % 84,5 Araban, % 70,7 Gipuzkoan eta % 66,7 Bizkaian.

Aitzitik, familiaren etxebizitzatik emantzipatu gabe egonik Etxebiden izena eman dutenen kopuruak behera jarraitzen du, argi eta garbi. 2015ean % 39,6 ziren eta 2017an, berriz, % 29,6. Aurreko urteen aldean egiturazko aldaketa nabarmena izan da, 2005ean Etxebiden izena emana zuten hiru pertsonatik bi emantzipatu gabe baitzeuden.

Etxebiden izena emateko arrazoia eta emantzipatutako pertsonen hileko errenta

Emantzipatutako pertsonak 512 euro ordaintzen dituzte alokairuaren truke. Halere, azpimarratzekoa da errenta hori ordaintzeko laguntzek eta prestazioek estaldura-maila zabala dutela: 2017an izena emana duten pertsonen % 22,7k jasotzen ditu halako prestazioak.

Hartara, izena emana duten pertsonen erdiak (guztien % 49,1ek) dio alokairu-errenta merkeagoa lortzea dela Etxebiden izena emateko arrazoia. Arrazoi horrek gero eta garrantzi handiagoa du: 2015ean % 45ek eman zuen arrazoi hori, eta % 49,1ek 2017an.

Etxebidek balorazio orokor ona du, aurreko urteetan jasotakoaren ildotik

Etxebiden izena emana duten pertsonak 57,5 puntu eman dizkiote 0-100 eskalan. Inkestari erantzun dioten pertsonen ia erdiak (% 48,3k) Etxebideren balorazio positiboa edo oso positiboa egin du; Etxebideren zerbitzua txartzat jotzen duten pertsonak (hamarretik bi) baino askoz ere gehiago dira.

Aurreko edizioetan bezala, Etxebideri buruzko balorazio positibo hori oso sendoa da, hiru lurralde historikoetan izena emana duten pertsonen eta alokairurako nahiz etxea erosteko erregistratuta daudenen gehiengoaren iritzia baita.

Etxebideren zerbitzuan hobekien baloratzen diren alderdiak (langileen arreta...) are gehiago hobetu dira 2015etik 2017ra

Etxebideko langileen arreta (erabiltzaileek antzemandako kalitatearen funtsezko alderdia da hori) hobetu egin da 2017an. Hartara, 74,9 puntu eman dizkiote erabiltzaileek, eta 71,4 puntu 2015ean.

Ildo horretan bertan, lurralde-ordezkaritzetara joan diren erabiltzaileen % 83,8k esan du bere arazoa edo kontsulta behar bezala konpondu dela. 2015ean % 79,8k esan zuen hori bera eta, beraz, datuak hobera egin du.

Era berean, izen-emateak berritzeko prozesuak areagotu egin dira 2017an, eta inskribatutakoen % 56,9k berritu egin behar izan du. Horren inguruko batez besteko gogobetetasun-maila hobetu egin da, eta puntuazio nabarmena lortu du (76,2); hau da, 2015ean baino 3,7 puntu gehiago.

... Aitzitik, etxebizitza-eskaintza da hobetu beharreko funtsezko alderdia, eta Etxebideren balorazio orokor positiboaren oztopo nagusia

Normalean baloraziorik txikiena jasotzen duten alderdiek (hala nola etxebizitza-eskaintzak eta etxebizitza babestuen kontrolak) izan dute bilakaerarik negatiboena 2017an. Izan ere, Etxebiden izena emana duten pertsonen % 56,2k uste du etxebizitza-eskaintza dela Etxebiden hobetu beharreko alderdirik garrantzitsuena.

Izena emana dutenek etxebizitza babestua eskuratzeko aukera gutxiago dituztela uste dute

Esandakoarekin bat, etxebizitza babestua esleitzeko aukerak neurtzen dituen batez besteko indizea 26 puntukoa izan da 2017an; hau da, 2015ean baino 11,5 puntu txikiagoa. Horrenbestez, Etxebiden izena eman dutenen gehiengoak (hiru pertsonatik bik) uste du 2017an etxebizitza babestua esleitzeko aukera gutxi edo oso gutxi dituela.

Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legean jasotako politika eta jardunbideek babes-maila handia dute, eta EAEko herri-administrazioen balorazioa zertxobait txarragoa izan da

Azkenik, EAEko herri-administrazioek etxebizitza-alorrean gauzatu duten lanaren balorazioak txarrera egin du 2015etik 2017ra; logikoa ere izan daiteke, testuinguru ekonomiko txarrean aurrekontuak murriztu eta baliabide mugatuak kudeatu behar izan baitira azken aldi horretan.

Nolanahi ere, azterketak berretsi egin du Etxebiden izena emana duten pertsonen babes handia ematen dietela Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legean jasotako neurri nagusiei. Kolektibo horri aurkeztu zaizkion jardunbide gehienek % 85etik gorako babes jaso dute. Etxebizitza hutsen gaineko kanonak jasotako balorazioa pixka bat txikiagoa izan da, nahiz eta Etxebiden izena emana duten gehiengo argiaren (% 73,9ren) babes jaso izan.

Etxebizitza hutsak desjabetzeko aukerak baino ez du jaso babes txikiagoa, nahiz eta inkestari erantzun dioten pertsonen erdia (% 49,5) alde egon. Neurri horren aurka agertu den % 38,5a baino gehiago izan dira, beraz, alde agertu direnak.